



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren 2020ko karga-tasa.

Udal honek, 2019ko urriaren 31an egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1.-2020. urteko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren karga-tasa hau onestea:

-%5ekoa, Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren karga-tasa exekuzio-materialaren aurrekontuaren gainean. Hortik kanpo gelditzen dira onura industrialak eta proiektua egiteari eta obra-zuzendaritzari dagozkien ordainsariak.

-%3,5ekoa, teilatuak eta fatxadak konpondu, igogailuak jarri etxebizitzetan, oztopo arkitektonikoak kentzeko jarduketak eta ur berorako eguzki sistema jartzea (mistoa bada: eguzkia+gasa edo elektrizitea, berotze sistema osoari aplikatuko zaio).

-%2koa, eguzki panelen instalazio fotovoltaikoak, ur berorako eguzki sistema (mistoa bada: eguzkia+biomasa, berotze sistema osoari aplikatuko zaio), etxebizitzetako zaharberritzeko isolamendu termikoa hobetzen duten inbertsioak (proiektua behar da) eta geotermia energia jartzea.

Gutxienez ere ordaindu beharreko tarifa, obra lizentzia eskatzen den aldiro: 20,00 euro.

2. Erabaki hau 30 egunez jendaurrean ikusgai edukitzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu ahal dezaten.

3. Aitzineko puntuan aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez badago, zerga-tasa horiek behin betiko onetsitza emanen dira. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Lesakan, 2019ko azaroaren 4an.

Alkate udalburua,



Ladis Satrustegui Alzugaray.